

# Nafarroako Gobernuak Nafarroako Plangintza Erregistroa eta hirigintza eta lurralde plangintzako instrumentuen aurkezpena arautuko ditu

Horretarako, kontuan hartuko du Lurralde eta Hirigintza Antolamenduaren Foru Legearen testu bategina garatuko duen foru-dekretuaren proiektua

**Asteartea, 2019ko Apirilaren 30a**

Gobernuak gaurko bileran akordioa onartu du, eta akordio horretan foru-dekretuaren proiektua hartzen da kontuan, Nafarroako Plangintza Erregistroa eta Foru Komunitateko hirigintza eta lurralde plangintzako instrumentuen aurkezpen-formatua arautuko dituen, hain zuzen ere.

Testua Nafarroako Kontseilura eramango da, ondoren irizpena eman dezan.

Arau-xedapen horren helburua da uztailaren 26ko 1/2017 Foru Dekretuko 70. artikuluan ezarritakoa garatzea; dekretu horren bitartez, Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazioako Departamentuaren Lurralde eta Hirigintza Antolamenduko Foru Legearen testu bategina onartzen da. Horretarako, ondorengo alderdiak arautuko dira: eduki dokumentala eta lurralde-antolamendu eta udal hirigintza-plangintzako instrumentuak Departamentuaren aurrean aurkezteko formatua, horiek izapidetu eta ondoren Nafarroako Plangintza Erregistroan sartzeko; inskripzioa egiteko prozedura nahiz publizitatea eta instrumentu horietara sartzeko aukera.

Halaber, foru-dekretuaren proiektu horren asmoa da lurralde-antolamenduko eta hirigintza-planetako instrumentuak Nafarroako Hirigintzako Informazio Sistemari sartzeko modua automatikoagoa eta eskuragarriagoa izatea profesional eta herritarrentzat.

Foru-dekretu proiektua kontsultatzeko aukera egon zen testua idatzi aurretik Gobernu Irekiaren atarian.